# JOSE ZAPIRAIN-I
## OROIPENA

---

ZAPIRAIN GIZAGAJUA

Zerezko chandak eraman zaitu
bañan ez dakit norañо,
guraso on ta senar aitzaki
gabe ziñana gaurdaño;
adiškidiak mindun utzirik
¿nora joan zera, nordaño?
leku obea ¿ez alzenduen
gurekiñ emen or baño?
Ez dakit gayak nola ez diran
neurriz etortzen nidaño,
otoitz eder ta šamur šamurrak
zuzendatzeko gorаño,
aulki chiki bat emalle onak
luzatu denan zudaño.
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Larritasunak utzi beziñ prest.
biyotzak eman dit amur,
ezer gaizkirik egin badizut
barkatu Jošе, ta ¡agur!

JUAN IGNACIO URANGA

* * *

OROIMEN BAT

Zure obiyan lorecho bat det jartzen
nere biyotzetik dana jasotzen
intzaren ordez malkoak dute bustitzen
borondate osos dizut eskeintzen.

ROSARIO ARTOLA